

DERBIETAKO ESALDIAK

**JOHN TOSHACK** (Realeko entrenatzailea)

«Heynckes irabazlearen pentsamoldearekin etorri da, klubean eta Alemaniako selekzioan duen palmaresagatik»

**JUPP HEYNCKES** (Athleticeko entrenatzailea)

«John Toshackek heziketa ona dauka, eta sailkapena ikusten duenean ezin du beste modu batera hitz egin»



XOUSE SIMAL

TALDE BAKOITZEKO PERLAK. Toshack eta Heynckesek derbi bateko aulkietan elkar ikusten zuten hirugarren aldia zen, 1994ko urtarrilaren 9an; Alkiza eta Guerrero ziren talde bakoitzeko perlak, baina partida 0-0 amaitu zen, San Mamesen derbian inoiz ikusi gabeko emaitza.

Jon Ordoñez | DONOSTIA

Heynckesek oraindik Athleticeko entrenatzaile ez zela ikusi zuen lehen aldiz John Toshack Realaren aulkian San Mamesen. 1991-92ko denboraldiko bigarren itzulian ari ziren bi taldeak. Zuri-gorrien aulkian Txutxi Aranguren zegoen, baina Heynckesek Jose Julian Lertxundi presidentearekin akordioa lotua zuen hurrengo bi denboraldietan Athletic entrenatzeko. «San Mamesen zegoen giroak eta futbol zelaia berak txunditu egin ninduten», gogoratu du alemaniarrak.

Hilabete batzuk geroago, 1992ko urrian, lehen aldiz ikusi zuten elkar aulkietan Toshackek eta Heynckesek Real-Athletic derbi batean. Lau aldiz neurtu dituzte indarrak, eta lehenengoan hitz handirik gabe pasatu zuten. Ordea, ez zuten askorik iraun ahoa itxita. Heynckesek loreekin ireki zuen bidea: «Ez dut ulertzen zergatik txalotzen dituzten San Mamesen Realaren aurkako golak». Loreen atzetik, ordea, sugeak atera ziren, eta «euskal jokalarionek Athleticen jokatu beharko lukete» bere esaldi famatuak bolbora usaina zabaldu zuen Donostian. «Euskaditik

Loreak eta sugeak

TOSHACK-HEYNCKES DERBIAK. Galestarrak eta alemaniarrek batzuetan hitz beroak izan dituzte eta besteetan gozoak derbietarako

LAU DERBIAK

URANGAREN LEHEN DERBIA. Luis Urangak presidente gisa ikusi zuen lehen partida Athleticen aurkako derbia izan zen, 1992. urteko urrian, San Mamesen. Zuri-gorriek 2-0 irabazi zuten, Ziganda eta Valverdearen gol banarekin.

ATOTXAKO AZKENA. Atotxako azken Real-Athletic derbia 1993ko martxoan jokatu zen, eta txuri-urdinek 1-0 irabazi zuten, Alkizaren gol batekin.

SAN MAMESEN, LEHEN ALDIZ 0-0. 1994ko urtarrilaren 9an Athletic eta Realak 0-0 amaitu zuten denboraldi horretako lehen derbian. Bilbon golik sartzen ez zuten lehen aldia izan zen.

ANOETAKO LEHENA. Athleticen hauteskunde kanpaina zutela, 1994ko maiatzaren 8an jokatu zuen lehen derbia Athleticen Anoetan. 0-0 amaitu zuten. Arrate atera zen presidente.

kanpo Athletic ez da ezaguna», Toshackek errebolbera atera zuen.

Pekingo bizikleta istripua

1993ko martxoan jokatu zen derbi hura bero-bero etorri zen bi entrenatzaileen ahoetatik.

«Pekinen gertatutako bizikleta istripu batek adina axola dit Realak» esanez, Heynckesek entrenatzaileen arteko gerra zabaldu zuen, eta presidenteek ere ezpatak zorrotik atera zituzten. «Realean konplexuak badiutuzte, sendatzeko modua pilu-

lak hartzea da, edo psikiatra-rengana joatea», bota zuen Lertxundik. Urangak urruti ipini zuen bake hitzarmena: «Oso zaila izan behar da maitasun harremana izatea aste honen ondoren».

Partidua iritsi zen, eta Realak 1-0 irabazi zuen. Bolbora usaina galdu egin zen. Hurrengo denboraldian agerian geratu zen Urangak ez zuela asmatu. «Heynckes irabazlearen pentsamoldearekin etorri da, klubean eta Alemaniako selekzioan duen palmaresagatik», esan zion Toshackek alemaniarri, eta Athleticek batasun taldea zuela gaineratu zuen, «oso polita». Heynckesen erantzuna gozoa eta garratza izan zen aldi berean: «Toshackek heziketa ona dauka, eta sailkapena ikusten duenean ezin du beste modu batera hitz egin». Pozorik gabeko denboraldia izan zen 1993-94koa, eta bi derbiak golik gabe amaitu ziren. Oraingoan ere ez dago eztabaidarik.

OSASUNA

Ezker belauneko barne lotailua hautsi ostean, Olarra ezin ariko da bi hilabete

Asier Legarda-ereño | IRUÑEA

Iruñera iritsi zenetik, Rafael Olarra atzelari txiletarrak ez du zorterik izan. Gorritxoaren fitxaketa sonatuenetakoa izan arren, jakina zen hasierako hamaikakotik kanpo geratuko zela, baina, horretaz gain, atzoko entrenamenduan Olarrak Rosadorekin tupust egin, eta ezker belauneko barne lotailua hautsi zuen.

Olarra atsekabetuta zegoen eguerdian Taxoaren: «Igandean hasierako hamaikakoan egoteko esperantza handirik ez nuen, baina deialdian sartzeko irrikaz nengoen, eta orain hori ere ezingo dute egin. Gustura ari nintzen entrenatzen, eta hobera egiten ari nintzen, baina orain taldekideak animatzea besterik ezin dut egin», esan zuen Olarrak, azterketa medikoa oraindik egin ez bazioten ere.

Arratsaldean, Iruñeko San Migel Klinikaren eginekiko erresonantzia magnetikoak usterik txarrenak baieztatu besterik ez zuten egin. Jorge Fernandez del Prado medikuak: «Lotailua hautsia du, eta zortzi aste inguru beharko ditu osatzeko».

Igandean, bi euskarriekin

Bestalde, Osasunak Celtaren aurka zelairatu dezakeen hasierako hamaikakoa argituz doa. Unzué, Yanguas, Krutxaga, Jusue, Rivero, Lekunberri, Puñal, David Cano, Gancedo, Montenegro eta Rosado dira aukeratutako hamaika gizonak. Joko sistema da oraindik argitu gabeko gauza, eta denboraldi-aurre osoan Osasuna euskarri bakarrekin aritu bada ere, badiardi Puñal eta Cano euskarri lanetan ariko direla. Canok, nahi gabe, hala adierazi zuen: «Euskarri bikoitzean jokatzen ohituta nago».